

Asko da

Mirari Martiarena

Zaila da erabakiak hartzea. Berezi-ki bide bat hartzeak bestea uztea esan nahi badu. Bide lauetatik ibiltzeak eroso eman dezake, arriskurik ez dagoelako askotan. Baina ez da beti uste bezain xamurra edo erraza. Azken bost urteotan nire lana, lantokia, etxea izan dena utzi berri dut; agur esan diot Oiartzun Irratiari. Jende askok galde-tu dit ea non hasten naizen lanean, ea lan hobe batera noan, eta harritu egiten dira beste lanik ez dudala erantzuten diedane-an.

Konfort-gunean geratzea izango litzate-ke errazena. Egun guztia kexatuz eta “gai-xoa ni” abestuz. Mezetako “erruki jauna” errepikatuz. Gure esku ez dauden mila gauza daude bizitzan eta erabakiak har-

tzeko beldur gara. Kaiola horretan egon naiz preso, inguruko aldaketekin inbi-dia pasaz.

Buruak eta gorputzak aldaketa eska-tzen zidaten. Aldaketaren zain nengoen; norbaitek etxeko atea jo eta lan eskaintza bat egin zain, baina ez zen horrelakorik gertatzen. Kostata, baina lana uztea era-baki nuen eta, erabakia hartu bezain pronto, nabaritu nuen pisu handi bat kendu nuela gainetik. Kezka ere banuen ingurukoek zer esango zuten, baina sor-presa politik jaso ditut eta oso babestuta sentitu naiz.

Pixkanaka-pixkanaka eta maitasun handiz itxi ditut lanean nituen atea-k. Oiartzun Irratiko programa desberdinak, kolaboratzaileekin nituen tartea, entzu-

leak. Ez nuen agur bazkaririk nahi, baina entzule batek esan zidan: «Mirari, bost urtean gure etxean egunero sartu zara eta ez duzu eskubiderik agur bazkari bat egin gabe alde egiteko». Horixe da irrati-aren magia. Jendearen etxera sartzen zara, konpainia egiten diezu, familia bihurtzen zara. Lankideek agur programa eta bazka-ri eder bat prestatu zizkidaten. Oraindik ere hunkitu egiten naiz gogoratu hutsa-rekin.

Bide ezezagunek beti ematen dute bel-durra, baina ate bat itxita berriak zabal-tzen omen dira. Ate berriak, leihoak eta zirrikituak. Bidelagun bikainak ditut, proiektu berriak, lanerako gogoia, umorea eta Oiartzun Irratian bost urtean ikasita-ko guztia. Asko da; asko dira. •

«Pinkwashing»

Koldo Sagasti

Pasa den uztailaren 2an World Pride 2017 jaialdia ospatu zen Madrilen, LGTBIQ mugimenduaren topaketa nagusia mundu mailan. Prentsan oihartzun zabala izan zuen ospakizunak, ez, ordea, festa koloretsuaren atzean da-goen izpiritu aldarrikatzaileak. Aurtengo deialdiak, baina, kolore, konfeti eta txin-partatik asko izan badu ere, giza eskubide-ekiko begirunetik gutxi izan omen du. Ha-laxe salatu du BDZ kanpainako (Israelen Aurkako Boikot, Desinbertsioak eta Zigo-rrak) Pinkwashing Batzordeak. Haien esa-netan Madrilgo World Pride Israeletik kanpo sekula antolatu den *pinkwashing* antzezpenik handiena izan da. LGTBIQ ko-lektiboaren aldarrikapenekin ustezko be-girunea agertuz mundu mailan estatu de-

mokratiko eta aurrerakoiaren itxura ema-tean datza “zurikeria arrosa” deritzoten hori. Eta aurtengo World Prideren edizio-an ere sionisten presentzia bermatu du AEGAL (Madrilgo Gay eta Lesbianentzako Enpresa eta Profesionalen Elkarte) talde antolatzaileak.

Israelen aurkako Boikotaren aldeko eki-menekoek salatu dutenez, AEGALek kon-promisoa adierazi zuen aste batzuk lehe-nago Madrilgo jaialdian ez zutela Israelgo enbaxadaren inongo esku hartzerik onar-tuko, ezta Israelen gorazarrerako ikurrik ere. Bada, agindutakoa bete ez eta estatu sionista goraipatzeko ekimena bilakatu zuten antolakuntza taldekoek bukaerako gala. Ekitaldi horren punturik gorena Al-calako Atean Tel Aviveko Harrotasun Jaial-

diaren promoziorako bideoa proiektatu zutenekoa izan zen. Baina ez zen hori izan gehiegikeria bakarra. Nazioarteko Legedia ere urratu zuten antolatzaileek, Jerusalem hiria Israelen barruan kokatu zutelako amaierako ekitaldi horretan. Nola edo ha-la, Israeliek presente egon behar zuen Ma-drileko deialdi sonatuan, horrelaxe ager-tzen baita iritzi publikoaren aurrean nazio aurrerakoi eta tolerante moduan herri pa-lestinarraren aurka milaka zitalkeria bu-rutzen dituen bitartean. Agian, harrotasu-naren festibalak itxurakeriatik harago bere sen aldarrikatzailea berreskuratzen duenean, izango da bertan giza eskubide guztietarako tokia, ez baitago kolektibo baten eskubideak defendatu eta pertsona guztienei ezaxolarena egiterik. •